

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRIETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onestea hondakin uren saneamenduaren tasak arautzen dituen zerga ordenantza

Kontzeju honek, 2022ko uztailaren 7an egindako bilkuran, hasierako onespena eman zion hondakin uren saneamenduaren tasak arautzen dituen zerga ordenantza onesteko espedienteari. Espediente hori jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onesten da.

Horregatik, aldaketa oso-osorik argitaratzen da, indarrean jar dadin, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Arrieta, 2022ko irailaren 13a

Lehendakaria

AITOR ALVARO RUIZ DE EGUILAZ

HONDAKIN UREN SANEAMENDUARENTASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRA

1. artikulua

Arrietako Administrazio Batzarrak, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuen Foru Arauaren 6.b) eta 35.b) artikuluetan jasotakoaren arabera dauzkan ahalmenez baliatuz eta Arabako zergen Foru Arau Orokorraren 1. artikuluekin loturik, ordenantza honen azalpenean aipatzen den tasa ordainaraziko du.

2. artikulua

Ordenantza hau jurisdikzio osoan aplikatuko da.

3. artikulua

Estolderia izan behar duen eraikin bat egin nahi duen pertsona edo erakunde orok administrazio batzarreko lehendakariari edo idazkariari jakinarazi beharko dio sare nagusiarekin lotzeko asmoa duela.

Horretarako, eskatzaileak obretarako dagokion udal baimena eskatu beharko dio udalari.

4. artikulua

Eskatzaileak administrazio batzarreko zerbitzu teknikoek adierazten dizkieten araei jarraituz egingo ditu sare nagusira lotzeko lanak. Hartunea bide publikoetatik edo ezarritako zortasun zonetatik egingo da, eta eskatzaileak, era berean, zanga beteko du, administrazio batzarraren araei jarraituz.

Hartuneak sortutako gastuak eskatzailearen kontura izango dira. Zerbitzuaren erabiltzaileak, higiezinaren eraikitzaileak edo finkaren jabeak kontratatu eta ordainduko ditu adarraren edo, hala badagokio, hodi biltzailearen ezaugarriak eta hura instalatzeko, mantentzeko eta

maneiatzeko lanak, betiere administrazio batzarraren zerbitzu teknikoen ikuskatze aginpidearen menpe eta aldez aurretik dagokion obra baimena aurkeztuta.

Era berean, saneamendu sarea egin ondoren, hura administrazio batzarrarena izango da, eskatzailearen finkaren barruan dagoen zatia izan ezik.

II. ZERGA EGITATEA

5. artikulua

1. Hauek dira tasaren zerga egitatea:

a) Estolderia sare orokorrean egin beharreko hartuneak baimentzeko baldintza tekniko eta administratiboak betetzen diren ala ez egiaztatzeko jarduera.

b) Iraizkinak, euri urak, ur beltzak eta hondakin urak tokiko estolderia sarearen bidez bideratzeko zerbitzua eta haiek arazteko tratamendua.

c) Ikuskapeneko eta ezaugarri teknikoak egiaztatzeko lanak eta, oro har, 4. artikuluan adierazten direnak.

2. Ez dute tasa ordaindu beharrik izango finka eraitsiek, hondatzeko zorian daudela adierazitakoek edo orube edo lurzoru direnek.

3. Hartunetzat ulertzen da kasuan kasuko higiezinetik ateratzen den adarra edo, hala bada, gorkio, hodi biltzailea, administrazio batzarraren estolderia sare orokorraren hodi biltzailera bideratzen dituen ur zikinak, hondakin urak edo antzekoak.

III. SUBJEKTU PASIBOA

6. artikulua

Hauek dira subjektu pasibo zergadunak:

1. Arabako Zergen Foru Arau Orokorreko 35. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, baldin:

a) Sarean hartunea egiteko baimena emateko bada, finkako bizileku erabilgarriaren jabea, gozameduna edo titularra.

b) 5. artikulua 1.b) letraren zerbitzuak emateko bada, kontzejuko finken okupatzaile edo erabiltzaileak, zerbitzu horiek jasotzen dituztenak hain zuzen, zernahi direla ere: jabe, gozamedun zein errentadun, baita prekarioko erabiltzaile ere.

2. Edonola ere, etxebizitza edo lokalen okupatzailearen edo erabiltzailearen ordeko subjektu pasiboa izango da higiezin horien jabea, eta, hala balegorkio, zerbitzuaren onuradunei jasanarazi ahal izango dizkie berek ordaindutako kuotak.

7. artikulua

Erantzuleak:

Subjektu pasiboaren zerga betebeharrengatik era solidarioan erantzungo dute Arabako zergen Foru Arau Orokorraren 41. eta 42. artikuluetan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoek.

IV. ZERGA OINARRIA

8. artikulua

Zerbitzua zein unitatetan gauzatzen den, hura da zerga oinarria, tarifan ezarrita dagoenaren arabera.

V. KUOTA

9. artikulua

Zerga kuota:

1. Estolderia sare orokorrarekin egindako hartunearen lizentziari edo baimenari dagokion zerga kuota behin bakarrik eskatuko da, eta eranskinean agertzen den kopurua ordainduko da.

2. Estolderia eta arazketa zerbitzuak emateagatik eskatu beharreko zerga kuota zehaztuko da finkan erabilitako ur kopuruaren arabera, metro kubotan neurtua. Horretarako, eranskinean agertzen den tarifa aplikatuko da.

10. artikulua

Salbuespenak eta hobariak:

Ez da inolako salbuespenik egingo, ez eta inolako hobaririk aplikatuko ere, tasa hau kobratzean.

VI. SORTZAPENA

11. artikulua

Obligazioa sortzea:

1. Zerga egitatea dakarren udal edo jurisdikzio jarduera hastean sortzen da tasa eta tasa hori ordaindu beharra. Hona hemen noiz jotzen den hasitzat:

a) Hartunearen baimen eskaera aurkezten den datan, subjektu pasiboak berariaz hala eskatzen badu.

b) Hartunea udal estolderia sarean egiten den unean bertan. Hartunearen baimena lortu zein ez sortzen da tasa mota hori ordaindu beharra; hala ere, baimen hori emateko, administrazio espedientearen hasiera izapidetu daiteke.

2. Irazkinak, euri urak, ur beltzak eta hondakin urak husteko zerbitzuak, bai eta haiek araztekoak ere, derrigorrezkoak dira kontzejuko finka guztietarako, baldin eta estolderia dagoen kaleetara, plazetara edo bide publikoetara ematen duten fatxadak badauzkate, betiere sarearen eta finkaren arteko distantzia ehun metro baino gutxiago izanda. Nahiz eta interesa dutenek ez egin hartunerik sarean, ordaindu egin beharko dute tasa.

VII. KUDEAKETA

12. artikulua

Estolderia zerbitzua kudeatzeko lana Gineako Administrazio Batzarrak egiten du; hain zuzen ere, hondakin urak araztu eta hobi septikoak eta estolderia sareak garbitu. Ez da garbituko sare orokorrerako hartuneen buxadurarik, eta beste edozein zerbitzu ere ez da emango.

1. Zergadunaren ordezeko diren subjektu pasiboek altaren eta bajaren aitorpenak egin beharko dituzte tasaren subjektu pasiboan erroldan, finkaren titularitatea aldatzen den egunetik hurrengo hilaren azken egunera bitartean.

Altaren eta bajaren aitorpenak egiteko epea amaitu ondoren egingo den lehenengo likidazioaren egunetik aurrera izango dute indarra esandako aitorpenek. Erroldan lehenengo aldiz sartzea ofizioz egingo da, sarearekiko hartunea egiteko baimena eman ondoren.

2. Tasa honetarako eskatutako kuotak likidatu eta kobratuko dira edateko uraren hornidura eta kontsumoaren ordainagiriei dagokien epe berberetan.

3. Hartunea egiteko baimenaren kasuan, zergadunak dagokion eskaera egingo dio administrazio batzarrari, eta administrazio batzarreko tributu zerbitzuek, behin baimena eman ondoren, dagokion likidazioa egingo dute, eta jakinarazi egingo zaio zuzenean ordain dezan diru-bilketako erregelamendu orokorrak aipatzen dituen modu eta epeen arabera.

VIII. ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

13. artikulua

Zergen arau hausteei dagokien guztian, bai eta arau hauste bakoitzari dagokion zehapenen kasuan ere, Arabako Zergen Arau Orokorrak xedatutakoari jarraituko zaio.

IX. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere eranskina, zeintzuk 2022ko uztailaren 7an onetsi baitziren behin betiko, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean, eta hala jarraituko dute harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

ERANSKINA

Tarifak:

- Neguko tasak: abendua, urtarrila, otsaila, martxoa, apirila eta maiatza hartzen dituzte beren baitan.

Kontsumotik aparte ordaindu beharreko kuota finkoa: 1 euro hileko. Kontsumoa: 0,20 euro/m³.

- Udako tasak: ekaina, uztaila, abuztua, iraila, urria eta azaroa hartzen dituzte beren baitan.

Kontsumotik aparte ordaindu beharreko kuota finkoa: 1 euro hileko. Kontsumoa: 0,30 euro/m³.

- Hartune berriagatik ordaindu beharreko tasak: 2.500 euro gehi urteko KPIa.